AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3146

729/2012 EBAZPENA, ekainaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez, aldatu egiten da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 573/2012 Ebazpena, hautatze-prozesuetarako kalifikazio-epaimahaiak izendatzeko dena, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duten hainbat kategoriatan pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 573/2012 Ebazpena aldatzea, Ofizial (Mantentze-lanetako ofizial gisako lanpostuak) kategoriako kalifikazio-epaimahaiari dagokionez. Honako aldaketa hauek onartzen dira:

a) Ana María Oñate Martínez andrea lehenengo bokal titularra izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) Jose Luis Prieto Fernández jauna lehenengo bokal titularra izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu izango zaio Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.